

HILDAKOAK ESNATZEKO UKENDUA

OSAGAIAK: -Hildako baten gorpua
-Saguzahar baten odola
-Marrazo baten begiak
-Hildako horri lehenengo erori zitzaion ilea
-Eltxo baten burmuina
-Momia baten bendajea

UKENDUA NOLA ERABILI BEHAR DUGU?

Lehenik eta behin, hildakoaren gorpua, berpiztu nahi dugun gorpua, ahi bihurtu behar dugu. Ahí horri saguxarraren odola bota beharko diogu. Baina kontuz! Hau bakarrik abenduaren 12aren gaueko hamabiek hamabi minutu eta hamabi segundu dituztenean egin daiteke.

Ongi irabiatuta duzunean bota itzazu marrazo baten bi begiak, baina begi hauek lehendik bere jabeak murtxikatuak izan behar dira, hau da, marrazoak. Ongi murtxikatuta daudenean bota ezazu bestearekin batera. Orain, nahasketa horri eltxo baten burmuina gehitu behar zaio. Ondoren, hau dena solidatu behar duzu, hau da, izoztu. Hau solido dagoenean momia baten bendatuarekin bildu behar duzu eta bilduta duzunean berpiztu nahi duzun hildako horri lehenengo erori zitzaion iletik zintzilikatu.

UKENDUA NOLA ERABILI

Berpiztu nahi duzun hildakoaren zerraldoan sartu behar dugu eta honen ondoan etzan. Ukendua berriro likido bihurtu eta hildakoaren gorpu osotik, baita barrutik ere, sakabanatu. Ondoren, zure ahoan ere eman kantitate handi bat eta hau ahoan duzula eta hildakoaren gorputz guztia ukenduz bustita dagoela, esan itzazu hitz hauek ahapeka:

EZ ZAITEZ HORRELA GERATU!!!!!!!!!!!!!!
HERIOTZATIK SALBATU!!!!!!!!!!!!!!
MUNDU HONETARA BUELTATU!!!!!!!!!!!!!!